## PROMOZIOAREN OINARRIAK: “Praktikatu #mendibiling San Balentin egunean”

Mendibil merkataritza-parkeko jabeen erkidegoak, Almirante Arizmendi kalea, 9 - 20302 Irun (Gipuzkoa) helbidea eta H-20818944 IFK dituenak, : “Praktikatu #mendibiling San Balentin egunean” sustapenak antolatu du. San Balentin egunean #mendibiling praktikatzen baduzu, bi pertsonentzako afari bat eta zinemara joateko sarrerak irabazi ahalko dituzu.

Sustapen-ekintza hau 2020ko otsailaren 1etik 14ra (biak barne) Mendibil merkataritza-guneko establezimenduetan erosketak egiten dituzten bezeroei zuzenduta dago. Erosketak egin eta gero, sustapenaren funtzionamenduari jarraikiz, bi pertsonentzako afari bat eta zinemara joateko sarrerak eskuratzeko zozketa batean parte hartu ahal izango da.

## SUSTAPENAREN FUNTZIONAMENDUA

Sustapenak irauten duen aldian Mendibil merkataritza-guneko edozein establezimendutan erosketak egiten dituzten pertsona guztiek (16 urtetik gorakoek) parte hartu ahalko dute sustapen honetan.

Bezeroak erregistratu egin beharko dira. Horretarako, parte hartzeko inprimakia bete beharko dute eta 20 euroko edo gehiagoko erosketa-tiket baten datuak sartu beharko dituzte merkataritza-gunearen webgunean: www.centrocomercialmendibil.com. Erosketa-tiket hori saria jasotzerako unean aurkeztu beharko da.

Tiket bakoitzarekin behin baino ezingo da parte hartu eta pertsona batek ezingo du sari bat baino gehiago jaso.

Mendibil merkataritza-parkeko jabeen erkidegoko langileek ezin izango dute parte hartu, ezta merkataritza-gunean edo bertako establezimenduetan lan egin ohi duten langileek ere.

## ZOZKETAREN FUNTZIONAMENDUA

Zozketa otsailaren 17an egingo da. Ondoren, sarituari jakinaraziko zaio.

Saria jaso ahal izateko, irabazlea merkataritza-guneko gerentziaren bulegora joan beharko da, eta bertan webguneko erregistroan emandako datuak egiaztatu beharko ditu, erosketa-tiketa eta NANa aurkeztuz.

Irabazleari 40 euroko opari-txartel bat emango zaio, txartelean adierazitako ostalaritza-establezimenduetan erabili dezan (Ilcapo jatetxea, Virginia jatetxea eta Burger King); horrez gain, Ocine Mendibil zinemara joateko bi gonbidapen emango zaizkio. Opari-txartela eta zinemara joateko gonbidapenak 2020ko martxoaren 15ra arte erabili ahalko dira.

## PARTE HARTZEKO NAHITAEZKO BETEKIZUNAK ETA BALDINTZA OROKORRAK

Sustapenean parte hartuz gero, oinarri hauek oso-osorik onartzen dira; hortaz, oinarriak onartzen ez direla adieraziz gero, parte-hartzailea sustapenetik kanpo geratuko da. Horrenbestez, Mendibil merkataritza-parkeko jabeen erkidegoak ez du parte-hartzailearekin aurretik hartutako inolako betebeharrik edukiko.

Sustapenaren sariak indarrean dauden zerga- eta lege-xedapenen mende daude.

Mendibil merkataritza-guneak sustapen honen baldintzak edozein unetan aldatzeko eskubidea izango du, bai eta kanpaina amaitu baino lehenago sustapena deuseztatzeko eskubidea ere, baldin eta justifikatutako arrazoiak badaude.

Irabazleak ezin izango dio saria beste inori laga eta sariak ez dira inolaz ere diruagatik trukatuko.

Zozketaren irabazleek beren irudi-eskubideak laga eta baimentzen dizkiote Mendibil merkataritza-parkeko jabeen erkidegoari, eta, gainera, jabeen erkidego horrek haien izen-abizenak, bizi diren hiria eta herrialdea eta irudia erabili ahal izango ditu barne zein kanpo komunikabideetan merkataritza-gunearen publizitatea egiteko. Horrez gain, erabiltzeak ez die lortutako saria baino eskubide gehiagorik emango. Irabazleak ez badizkio Mendibil merkataritza-parkeko jabeen erkidegoari hemen aitortutako eskubideak baimentzen, ulertuko da irabazleak ez duela saria nahi. Horrenbestez, jaso baldin badu, itzuli beharko du.